

Praileaitz I haizuloaren liburua aurkeztu dute berriki, barrunbe honetan 2000 eta 2009 urte artean egin diren lanak batzen dituen monografikoa. Liburuaren egileetako bat da Sonia San Jose arkeologoa, Geoparkeko Batzorde Zientifikoko kidea.

Liburuaren sortze prozesua ikerketa proiektuarekin batera hasi zen, duela 17 urte...

Bai, lan luzea izan da. Kontuan izan behar da indusketa arkeologiko bat egiten denean informazio ugari bildu eta kudeatu behar dela. Lehengai anitzez egindako tresnez eta objektuez gain, lagin ugari jasotzen dira material horiek ateratzen diren testuingurua berreraikitzeko, zer klima zegoen, zer egur-mota ustiatzen zuen bertan egondako gizakiak... Horrek lan handia eskatzen du, aditu desberdinen laguntza behar da, eta gero ekarpen guztiak batu egin behar dira. Horretan 28 espezialistek parte hartu dute, Euskal Herriko zein munduko unibertsitate eta ikerketa zentrotakoak, Xabier Peñalverren, Jose Antonio Mujikaren eta nire koordinaziopean. Aranzadi Zientzia Elkarteak argitaratzen duen Munibe Monographs bildumako Antropologia eta Arkeologia seriearen lehenengo alea da.

Kobazuloaren ikerketak asko eman du orain artean. Zer aurkikuntza nabarmenduko zenituzke?

Bertan aurkitu ditugun aztarnak urriak izan badira ere, oso bereziak dira: duela 10.000 bat urtetako sutondoak 200 maskorrekotako geruza baten gainean, funtzionalitate zehatzik gabe; duela 12.000 bat urtetako aginte-makila zulo bikoitzaduna... horrelako aztarnak ez dira maiz aurkitzen, baina horien artean, Behe Madeleine Aroko maila azpimarratu behar dugu: duela 15.500 urte haizuloaren atondoan zoru bat prestatu zuten harri zapalez egina, sarreraren aurrean sutondo bat zundatu zuten buztinean eta horren aurrean kareharrizko bloke bat ipini zuten, eserleku gisa. Horren inguruan harrizko 5 zintzilikario agertu ziren eta beste 3 ahuntz hortzetan eginikoak. Atondotik gertu, lehenengo barneko gelan 24 harrizko zintzilikario gehiago agertu ziren: multzotan banatuta, horietako batek 14 pieza zituen, eta beste 3 zintzilikario gunearen albo batean botata, puskatuta.

Ekainean eta uztailan indusketa kanpaina berri bat egin da. Geratzen da oraindik zer ikertu?

Egun beste sarrera batean ari dira ikertzen. Harrobiaren ustiaketaren aurrean Praileaitz babesteko egondako prozesuan, guk beti esan dugu ez zegoela ondo babestuta, "ezagutzen diren" galeriak besterik ez baitira kontuan hartzen, baina atondoaren ipar-mendebaldean lurrez betetako galeriak zeuden, eta ondoan aurkitzen genituen materialak zahar itxura zuten. Aspalditik pentsaten genuen material hori beste nonbaitetik zetorrela, eta, horrela, 2014an sarrera berri bat topatu zen, gainera Paleolito Erdiko materialak dituen. Egun bertan daude lanean, maila hori ikertzeko eta haizuloaren galerien garapena hobeto ezagutzeko.

Monografikoa paperezko edizioan zein bertsio digital librea dago eskuragarri.

Bai, Aranzadi Zientzia Elkartearen webgunean eskura daiteke; artikulua edo liburu osoa doan deskargatu daiteke pdf formatuan. Bestalde, paperezko formatuan ere badago salgai Aranzadin edo Debako Arkatza liburutegian.

**Irakurri elkarrizketa osoa geoparkea.com webgunean.*

¿Te gustaría estar al día de todo lo que pasa en Geoparkea?

Entra en la web geoparkea.com y suscríbete a nuestra newsletter mensual. Recibirás periódicamente en tu correo electrónico nuestro boletín con las últimas noticias y actividades.

www.geoparkea.com



EUSKADI
BASQUE COUNTRY

Euskal Kostaldeko Geoparkearen buletina Boletín del Geoparque de la Costa vasca



10. zenbakia - Número 10
Uztaila/Julio 2017

ELORRIAGAKO LABARRAK GARBITZEKO AUZOLAN JENDETSUA

100 boluntariorik gora batu ziren
joan den maiatzaren 27an Elorriagan,
Geoparkearen deia erantzunez



Maiatzaren 19tik ekainaren 11ra bitartean ospatu genuen aurtengo Europako Geoparkeen Astea, hitzaldiak, marrazki eta argazki lehiaketak, irteera eta ibilaldi gidatuak eginez. Ezbairik gabe, ekitaldi guztien artean nabarmenena Deba eta Zumaia arteko labarrak garbitzeko auzolana izan zen.

Labarretan pilatutako hondakinak eta plastikoa biltzeko garbiketa joan den maiatzaren 27an egin genuen Deba-Zumaia Biotopon, Elorriaga inguruan. Herritarrak ingurune honek duen ingurumen balioaz jabetzea eta kontzientziazio lan horretan auzolanaren bitartez partaide aktibo bihurtzea izan zuen helburu ekimenak.

Eskerrik asko boluntarioei egindako lan bikainarengatik

Auzolanean 100 bat boluntariok parte hartu zuten; horien artean, Zumaia GKN Driveline enpresako langileak eta Surfrider Foundation Europe eta Kantauri Garbia elkarteetako lagunak.

Pozgarria izan zen adin guztietako boluntarioak itsasoak lehorrean ekarritako hondakin pila jasotzen ikustea, bertako ingurune naturalaren edertasuna zaindu eta mantentzearen alde elkarlanean. Mila esker!

“LABARRETAKO IZAKIAK” MARRAZKI LEHIAKETAK BADITU IRABAZLEAK



Aurten ere, Geoparkearen Astearen baitan, marrazki lehiaketa egin dugu Debako, Mutrikuko eta Zumaia lehen hezkuntzako ikasleei zuzenduta. *Labarretako izakiak* goiburupean, gure kostaldeko itsaslabarretan eta arroketan bizi diren izaki bizidunak ezagutu eta sentsibilizazioa sustatzeko ahalegina izan da. Guztira, 557 lan aurkeztu dira eta sariak joan den ekainaren 5ean banatu genituen Debako turismo bulegoan.

Hauk dira saridunak: **Irati Urreizti Gonzalez** mutrikuarra (LH1-2), **Nikolax Larrañaga Alberdi** oikiarra (LH3-4), **Maren Alkorta Arreitunandia** mutrikuarra (LH5-6), eta sari nagusia Debako **Nora del Olmorentzat** izan da. Zorionak!!

PRIMERA REUNIÓN DEL COMITÉ CIENTÍFICO DEL GEOPARQUE DE LA COSTA VASCA

Integrado por 29 personas expertas en diferentes campos de la ciencia

El pasado 19 de mayo tuvo lugar en el Palacio Agirre de Deba el primer encuentro del Comité Científico del Geoparque UNESCO de la Costa Vasca. La reunión sirvió para dar a conocer el plan estratégico del Geoparque y para enfatizar la importancia de este Comité en el proyecto.



La comisión está integrada por 29 personas expertas de todo el mundo que desarrollan su actividad en distintos campos de conocimiento científicos, y presidida por el reconocido geólogo californiano Stanley Finney. El Director Científico del Geoparque, Asier Hilario, es miembro y coordinador de dicho órgano.

Esta comisión lleva ya varios años trabajando en colaboración con Geoparkea, pero ésta ha sido la primera vez que se ha logrado reunir al equipo de profesionales casi al completo.

GEO-TALKS, ZIENTZIA ETA KULTURA UZTARTURIK


Zientzialariek eta kultur sortzaileek bat egin zuten joan den maiatzaren 19an Donostian Geo-Talks izeneko ekitaldian, Geoparkeak Olatu Talka Jaialdiaren baitan antolatuta UrbanZientzia ekimenaren barruan.

Katalunia plazan jarritako kupula geodesikora hurbildu ziren dozenaka lagunek geologia, ekologia eta aurrehistoriari buruzko 6 hitzaldi labur eta didaktiko entzuteko aukera izan zuten. Hitzaldiez gainera, musika, bertsoa, antzerkia eta marrazkia uztartu zituen ikuskizunak. Bideoa geoparkea.com webgunean ikusgai dago.



Argazkia: Susana Cabañero

NUEVO MAPA GEOLÓGICO DE LA COSTA VASCA



resultado de un proyecto de colaboración denominado *Flysch & Go* y refuerza las relaciones entre las dos organizaciones en las áreas de educación y geoturismo.

El CPIE Littoral Basque y Geoparkea han elaborado, por primera vez, un mapa que incluye la información geológica de toda la costa vasca: los puntos de interés geológico más importantes, así como la información de las eras geológicas y sus divisiones.

El nuevo mapa geológico, que está disponible en la web geoparkea.com, es el

EUSKADIKO GEODIBERTSITATEARI BURUZKO III. JARDUNALDIK EGINGO DITU GEOPARKEAK

Jardunaldiak azaroaren 22tik 24ra bitartean egingo dira

Euskadiko Geodibertsitateari buruzko III. Jardunaldiak antolatuko ditu Geoparkeak azaroaren 22tik 24ra bitartean, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politika Sailarekin elkarlanean. Aurreko edizioa duela bost urte egin zen, Bilbon.

Geodibertsitatean interesa duten eragile ezberdinen arteko topaketa izan nahi du ekimenak eta geodibertsitatearen alorrean diharduten EAEko erakunde publiko zein pribatuek orain arte egindako lanak eza-gutzera eman nahi ditu. Lehenengo bi egunetan hitzaldiak eta mahai-inguruak egingo dira topaketaren gai nagusiei buruzko eztabaida eta gogoeta pizteko. Hirugarren egunean Geoparkeko interesgune geologiko nagusienak eza-gutzeko irteera egingo dute parte-hartzaileek.



Javier Carballo

GEOPARKEA ESTRENA LA GEO-RUTA DE OLATZ

Es la última en incorporarse a la Red de Geo-Rutas del Geoparque y la primera que se ha creado fuera del Biotopo Protegido Deba-Zumaia

El recorrido geológico de Olatz, en Mutriku, ha sido el último en incorporarse a la Red de Geo-Rutas del Geoparque, destinadas a todas aquellas personas que les guste disfrutar de la naturaleza, observar el paisaje y conocer todo el patrimonio natural y cultural que ofrecen.



La inauguración oficial tuvo lugar el pasado 4 de junio, en una visita guiada a cargo de **Martin Arriolabengoa**, geólogo de la UPV/EHU que ha realizado su tesis doctoral sobre el karst, y **Gonzalo Torre**, técnico de medio ambiente de Geoparkea.

Es una ruta sencilla de 6,5 km, recomendable para toda la familia

Olatz es un valle sorprendente rodeado de montañas con forma piramidal. Es una depresión formada por la disolución de la roca caliza que ha condicionado completamente la existencia de grandes encinares, los asentamientos prehistóricos y más recientemente, las localizaciones y tradiciones de los caseríos del valle.